

IZENAK ETA IZEN MOTAK

Zer da IZENA?

Izen Sintagmaren¹ ardatza da.

Zertarako balio du ?

Pertsonak, animaliak, gauzak, sentimenduak... izendatzeko balio du.

Adibidez : andre, Mikel, katu, ilargi, Irun, zapata, zaldi...


ANDRE hori nire bizilaguna da. ANDRE= ardatza
IS AS

MIKEL zurekin irten da. MIKEL= ardatza
IS AS

KATU beltza kalean dago. KATU= ardatza
IS AS

ILARGI betea izan da bart. LARGI= ardatza
IS AS

Kontutan izan behar dugu izenak mota desberdinetakoak direla eta taula honen arabera sailka daitezkeela:



Goazen bada, elementu hauek banan bana ikastera:

1. IZEN ARRUNTA: kategoria bereko edozein gauza edo izaki izendatzeko erabiliak.

Adibidez: katu esaten dugunean, edozein katari egiten diogu erreferentzia.



2. IZEN BEREZIA: izaki konkretu bati erreferentzia egiteko erabiltzen da.

Adibidez: "Miren" persona izena erabiltzen badugu, zehazki zein pertsonari buruz ari garen badakigu.

3. IZEN ZENBAKARRIAK: zenbatu daitezkeen izen arruntei esaten diegu.

Adibidez:



4. IZEN ZENBAKAITZAK: zenbatu ezin daitezkeen izen arruntei esaten diegu.

Adibidez:



5. IZEN ZENBAKAITZ NEURGARRIAK: zenbatu ezin ditugunak baina neurtu bai.

Adibidez:

- kiloka neur daitezkeenak: irina, azukrea, kafea...
- litroka neur daitezkeenak: ura, esnea, olio...

6. IZEN ZENBAKAITZ NEURGAITZAK: ezin ditugu zenbatu ezta neurtu ere.

Adibidez: sentimenduak. Nola marraztuko zenituzke?

...ez ahaztu, bai IZEN BEREZIAK baita IZEN ARRUNTAK ere bi multzotan bana ditzakegula: BIZIDUNAK eta BIZIGABEAK.

BIZIDUNAK: pertsonak eta animaliak.

BIZIGABEAK: gainontzeko gauzak (landareak barne)



Kontutan izan beharrekoa

IZEN BIZIDUNAK eta BIZIGABEAK deklinatzean desberdintzen dira.

BIZIGABEAK: Eskola

BIZIDUNAK: Mutila

Non? Eskolan

Norengan? Mutilarengan

Nondik? Eskolatik

Norengandik? Mutilarengandik

Nora? Eskolara

Norengana? Mutilarengana

Noraino? Eskolaraino

Norenganaino? Mutilarenganaino

1. ARIKETA: Sailka itzazu jarraian azaltzen diren izenak.
(Sailkapena honela egin behar da:” **gatz**: izen arrunta,
zenbakaitza, neurgarria, bizigabea.)

Zuberoa

lur

Mikel

orri

bero

beldur

Donostia

katu

landare

Karla

alkandora

lore

zeru

eskola

sagardo

haur

haritz

Lorea

gorroto

(Liburua: 87. orrialdea, 4. eta 5. ariketak)

DEKLINABIDEA


NUMEROA → KASUA ↓	<u>MUGAGABEA</u>	<u>MUGATU</u> <u>SINGULARRA</u>	<u>MUGATU</u> <u>PLURALA</u>
	(-)	(-a)	(-ak)
NOR			
NORK			
NORI			
NON/NORENGAN			
NONGO			
NORA/ NORENGANA			
NORANTZ/ NORENGANANTZ			
NORAINO/ NORENGAINO			
NONDIK/ NORENGANDIK			

Deklina itzazu hitz hauek: mendi, jaun, haran, neska.

LEXIKOA

HITZ ERATORRIAK - EGILE ATZIZKIAK

GOGORATU!!!



HITZ ERATORRIAK*

Hitz bakunetatik abiatuz hitz eratorriak sortzeko hiru modu daude:

<u>AURRIZKIDUNAK</u>	<u>ARTIZKIDUNAK</u>	<u>ATZIZKIDUNAK</u>
Aurrizkia + hitza	Hitza + artizkia	Hitza + atzizkia
BIR- + sortu: BIRsortu	Egin + -RA-: eRAgin	Irun + -dar> Irundar

EGILE-ATZIZKIEK ekintza edo lanbidea adierazten dute.

- (l)ari: abeslari, dantzari, bertsolari...
- le/-tzaile: idazle, irakurle, sortzaile...
- gin/-gile: hargin, langile, egurgile...

(Liburua: 90. orrialdea, 6., 7. eta 8. ariketak)